

IKASGAIAREN IZENA: BAGARA TAILERRA

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
ZERTARAKO?	<p>Euskal kulturaren transmisioa bermatzeko.</p> <p>Kulturaz gozatzeko eta ondo pasatzeko.</p> <p>Pertsona bezala gu geu munduan kokatzeko.</p> <p>Gure kultur komunitatea trinkotzeko eta indartzeko, kultur nahia hazteko.</p> <p>Kulturak besteekin komunikatzeko, munduari buruz , gure egunerokoaz, gutaz hitz egiteko... baliabideak ematen dizkigulako.</p> <p>Gure errealitatearen interpretazioa, pentsamendu kritikoa, irudimena eta sormena garatzeko.</p>
ZER IKASIKO DUZU?	<p>Gure Herriaren historiaren gertakizun garrantzitsuak ezagutu, iragana, oraina eta etorkizuna ulertzeko.</p> <p>Gure ohiturak, jaiak, sinismenak...</p> <p>Literatura eta kantagintza</p> <p>Antzekigintza</p> <p>Dantza.</p> <p>Artea. Zinema.</p>
METODOLOGIA	<p>Testuetatik, kantetatik, arte lanetik...abiatuta, horrek sortzen dituen gaien, sentsazioen, susmoen inguruan hitz egingo dute ikasleek, kultur esperientzia partekatuz.</p> <p>Jarduera dinamikoak, tentagarriak, erakargarriak, praktikoak, dibertigarriak, parte-hartzaileak.</p> <p>Era eta euskarri askotako informazio baliabideak eta iturriak: galdetegiak, inkestak, Interneta, filmak, dokumentalak, jokoak, bideoak, antzespenak, irteerak, bisitak, emanaldiak...</p>
EBALUAZIOA	<p>Honako tresnak erabiliko dira ebaluatzeko:</p> <p>Ikaslearen koadernoak.</p> <p>Eguneroko lana ikasgelan.</p> <p>Gelako jarrera (interesa, parte-hartzea, begirunea...).</p>